

txintx rri



Morea nagusi kaleetan

Ehunka herritarrek bat egin dute M8ko plantoekin eta kalera atera dira ekintzetan parte hartzeraz / 6-7

Landaberriko errepidea

Udalbatzarrak Hipodromoko bidea konpontzea babestu du, EH Bilduk eta PSEk proposatuta / 2

Lasarte-Oriako merkatarien zerbitzu eta produktuak oholtzaratuko dituzte moda desfilean / 4

Saskibaloiko seniorrek bigarren postuari eustea dute helburu, liderraren aurka etxean galdu ostean / 10

Aitaren egunerako oparitzeko ideia batzuk!

Ilea mozteko makina



bizarra berdintzeko makina



bizar-kentze sorta

ELECTRICIDAD
ARREGUI

600 857 586 
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

bizar-makina elektrikoa

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Beterri-Buruntza mankomunitatean sartzea adostu du udalbatzarrak

Landaberriko errepidea konpontzearen alde egin du batzarrak, EH Bilduk eta PSE-EEk mozioa aurkeztuta. Hezkuntzari eskatuko diote jangela jartzeko

Adrian Garcia

Beterri-Buruntza eskualdea osatzen duten udalerriek tokiko garapen, sustapen ekonomiko eta enplegu alorrean mankomunitate bat eratuko dute, eta hor izango da Lasarte-Oria ere. Udalbatzarrak aho batez onartu zuen, aldeko hamasei botorekin (EH Bilduko Kristina Bernal falta zen), erakunde horretan egotea. Hasiera batean udalerrri guztiak osatzekoak ziren erakunde hori, baina, finantza arazoak tarteko, Usurbilek atzeratu egin du sartzea. Ondorioz, hastapenean, Andoain, Hernani, Urnieta eta Astigarragarekin batera parte hartuko du Lasarte-Oriak. Hurrengo pausoa izango da estatutuak udalbatzarrerara eramatea.

Beste puntuak ere aho batez onartu zituzten udal ordezkariak. Esaterako, apirilko Mugi tarifena; Manttangorri herri autobusari eragiten dio.

Bestalde, aurreko astean EH Bilduk aurkeztutako mozioa mahai gainean jarri zuten. Landaberri ikastolarako Hipodromoko errepidea eta aldapa konpontzea, eta jangela zerbitzua jartzea proposatu zuten. PSE-EEk zuzenketa bat aurkeztu, eta bi alderdiek adostuta aurkeztu zuten mozio transakzionala. Aho batez onartu zuen udalbatzarrak gero.

Donostiako lurak

Modu horretan, Donostiako lurak direnez, hiriburuko udalari eskatuko diote lanak egitea. Donostialdeko lurralde planean jasota dagoenez, errepidea eta bidegorri bat egingo dute bide horretan. Bestetik, udalak konpromisoa hartu du aldapa konpontzeko, bere eskumenen barruan dago eta. Azkenik, Hezkuntza sailari eskatuko diote jangela jartzeko.

Puntu guztiak aho batez onartu ostean, galdera eta erreguen orduan izan zen ika-mika, batez ere, EH Bilduko Leire Elizegik

hitza hartu zuenean. Martxoaren 8ko egunaren harira gogor kritikatu zuen udal gobernua, eta salatu mugimendu feministarekin koordinatu ez zirela. Hainbat gizonetzko hautetsiren jarrera ere deitoratu zuen. "365 egun dituzue argazkietan ateratzeko, ezin al duzue egun bakar batean baztertu eta protagonismoa emakumeei utzi?"

Jesus Zaballos alkateak EH Bilduren hauteskundeetarako hautagaitza baliatu zuen erantzuna emateko. "Guk 16 urtez emakumezko alkatea izan dugu. EAJ alderdiak ere emakumezko bozeramailea izan du orain gutxi arte. Zergatik ez duzue zuek berdina egiten eta emakume bat aurkezten?"

Martxoaren 8a

Aurretik beste gai batzuk ere galdetu zizkioten gainerako alderdien ordezkariak. Ahal Du Lasarte-Oria Pudedeko bozeramaile Arkaitz Nayak Kaxkarro inguruko lurren desjabetzeari buruz jakin nahi izan zuen. Hain justu, lur jabeen familiak auzitara eramane du udala, emandako kalte ordainak nahikoak ez direlakoan. Balio justu auzitegi batek 500.000 eurotan ezarri zuen kopuru hori. Familiak, ordea, 5 milioi euro eskatzen ditu, lur hori urbanizatu daitekeelakoan. EAEko Auzitegi Nagusiak arrazoia eman dio familiari, eta udalak helegitea jarri du Auzitegi Gorenean. "Itxaron egin behar dugu, helegitea onartzen duen jakiteko. Badaezpada ere, udalak badu diru poltsa bat kalte ordain hori ordaintzeko", azaldu zuen alkateak.

Bestalde, EAJk ez du etsi, eta berriro saiatu da Jon Antxordoki bozeramaile TSSTko eraikina

DONOSTIALDEKO PLANEAN AURREIKUSITA DAGO ERREPIDEA ETA BIDEGORRIA EGITEA



Landaberriko errepidea konpontzearen alde egin dute batzarkide guztiak. TXINTXARRI



Landaberriko errepidea, Hipodromoaren parean. TXINTXARRI

zena salbatzen. Balio historikoa du, eta horrela katalogatua izan daiteke. 1949. urtean eraiki zuten. Udalak emana du azpiegitura eraisteko baimena, inguruan etxebizitzak egitea aurreikusita baitago. Edonola ere, lanak gelditu behar izan dituzte, Ura Euskal

Uraren Agentziaren baimena ez dutelako. Oria ibaiaren ondoan dago eraikina, eta, hortaz, beharrezkoa da agentziaren oniritzia hura eraisteko. Antxordokik Uraren agindua aprobetxatu zuen, udalari eskatzeko gaia "birpentsatzeko",

eta baimena bertan behera uzteko. Halere, ahalegina alferrikoa izan zen, Zaballosek ez duelako iritzi aldatu. "Udalak bere baimena eman du. Uraren baimena independentea da, hura eskuratu beharko dute lanak aurrera egiteko".

Lasarte-Oriako Udalak Txokoak aurkeztu ditu

450 haurrek parte hartu ahalko dute Udal Txokoetan. Lasarte-Orian erroldatutako haurrek lehentasuna dute. Izena emateko epea martxoaren 25etik 29ra zabalduko dute. Internet bidez edo Antonio Mercero gunean egin daiteke. Hobariak ere izango dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 2019. urteko Txokoak aurkeztu ditu. Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik eta Loiri enpresako Beñat Lopetegi eta Aratz Irigaraik azaldu dituzte udalaren Txokoen izena ematearen nondik norakoak.

Antxordokik jakitera eman duenez, aurten ere bi txanda izango dituzte; bata uztailean, eta bestea abuztuan. Txanda bakoitzean bi modalitate eskainiko dituzte; 10:00etatik 13:00etara, eta 9:00etatik 13:00etara. Garaikoetxea eta Sasota ikastetxeetan egingo dituzte. 450 plaza eskainiko dituzte guztira.

Izena ematerako orduan, Lasarte-Orian erroldatutako haurrek izango dute lehentasuna. Gainerakoak plaza hutsak geratzen badira eman ahalko dute izena. Salbuespen dira herriko ikastetxeetan 2018-2019 ikasturtean egon diren haur erroldatu gabeak. Horiek ere orain inskribatu ahalko dira.

Prezioei dagokionez, hiru orduko eskaintza 102 eurokoa da, eta laukoa, berriz, 137koa. Alabaina, LHko haurren kasuan, kiroldegiko bazkide ez direnek 117,60 euro edo 152,60 euro



Txokoetako arduradunak aurkezpen agerraldian. TXINTXARRI

ordaindu beharko dituzte, orduen arabera.

Martxoaren 25etik 29ra Internet bidez (<http://cl.sport-madness.com/udakotxokoak> orrialdean), edo Mercero gunean egin ahal izango da inskripzioa, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Arduradunek jakitera eman dutenez, izena emandako hurrenkera izango da plazak esleitzeko irizpidea. Gizarte Larrialditako Laguntzak jasotzen dituzten herritarrek gainerako

udal zerbitzuetan dituzten hobari berak izango dituzte. Bestalde, Udal Txokoetan seme-alaba bat baino gehiago matrikulatzen dutenen kasuan ere, hobariak izango dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Mercero guneko bulegora edo udaleko Euskara Zerbitzura jo daiteke, edo 644 533 270 telefono zenbakira deitu.

Bigarren urtez antolatuta dute Euskara Zerbitzuak Udal Txokoak, iaz lehiaketa publikora aterata baitzuen zerbitzua.



NEURE KABUZ

NEREA SEGURA

Ongi etorriak zarete!

IKUSPEGI-k, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, argitaratutako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE-ko) biztanleriaren % 9,4k jatorri atzerritarra du. Jatorriko herrialde nagusia Maroko da, Kolonbiak eta Errumaniak podiuma osatzen dute; eta usteak uste, Txinak 13. postua hartzen du. Gatazkak, beharrak euren bizitza uztera behartu ditu: lana, herria, lagunak... eta askotan, familia. Itxaropen eta geroaldi proiektuekin datoz. Bere bizkar-zorroetan kultura, zapora eta kolore berriak dakartzate; mundua partekatze asmoz. Hala ere, sarri ez ditugu besoak zabalik hartzen.

Afrikako mendebaldean hartzitutako zerealez egindako ahiari ogia deritzote; arto, basarto edo artatxikiaz egina dagoena. Loturarik ote? Gure sukaldaritza tradizionalak zenbait urtetan atzera egiten du. Baina urrundu ahala, ohitura zaharrak maiz euskaldunak ez direla ohartzen gara. Gure arbasoak, emigratu zutenak, maleta hutsarekin abiatu ziren Kalifornia, Suitza edo Argentinara; itzultzerakoan, kulturaz kargatuta ekarri zuten. Kultura gastronomikoa ere bai: jaki, errezeta eta zentzumen-espertentzia berriez ohartu ondoren.

Iristen diren haiekin gure mahaia partekatze beldur gara; aldiz, haien elikagai exotikoak goستن ditugu. Edo, zer dira bestela superelikagaiak? Ziurrenik, elikagarriz betetako produktuak, ongizatea eragiten dutenak eta % 100ean naturalak. Baina gure elikagaiak baino hobeak ote dira? Elikagarri gehiago dituzte? Ez du zertan izan behar. Baina dastatzen ditugu, gustuko ditugu eta gure lurretan lantzen ditugu. Artoa, patata edota tomatea izan ziren lehen; kuskus, kale edota kiwiak orain —Eusko Kalitatea?—. Gelditzeko etorri dira. Ongi etorriak zarete!

Togoko hezkuntza proiektu baten aldeko bazkari solidarioa

Bazkari solidarioa eta jaialdi txikia antolatu dute martxoaren 31n, Arantzazuko Ama Birjinaren eliza azpiko lokalean, 14:00etan. Herritarrek gonbidatu dituzte ekitaldi horretara, laguntzeko helburua baitu jaialdiak. Hain justu, Togoko Lome hiriburuan Foyer Adsis

hezkuntza proiektua babesteko dirua jasoko dute bazkari txartelen bitartez.

Tiket horiek Ormazabal loradendan eskuratu daitezke, 12 eurotan.

Lasarte-Oriako herritar ugari daude egitasmo horren inguruan lanean. "Proiektuak hiru urte daramatza martxan. Aurten lehen aldiz haur eta gazteekin lanean ari dira", jakitera eman dute ekintzako antolatzaileek.

Lasater aitarien eguna da eta ez dakizu zer oparitu?

Zatoz eta opari txartela prestatuko dizugu

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Orduetegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
• Tel. 943 37 08 45

AZKEN GELAK

Turkia

IRTEERA 2019ko ekaina
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

NOAOA BIDAIAK

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Ekimenean parte hartuko duten establezimenduetako arduradunak, alkatearekin eta Nuria Fernandez zinegotziarekin. TXINTXARRI

Kultur etxea, herriko modaren erakusleiho

Aterpea merkatari elkarteak antolatuta, herriko hainbat estetika, jantzi eta osagarri dende parte hartuko dute moda desfile batean. Kultur etxean egingo dute hilaren 23an. Gonbidapenak leihatilan lortzeko aukera izango da ekitaldia hasi baino lehen

Txintxarri

Moda pasarela bilakatuko da beste behin Manuel Lekuona kultur etxea. Arropa, osagarri eta orrazkeren alorrean herriak duen eskaintza zabalaren erakusgarri izango da Aterpeak antolatutako moda desfilea. Prestaketan, Lasarte-Oriako Udalaren sozio-ekonomia departamentuak eta Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailaren laguntza izan dute.

Hilaren 23an egingo dute saioa, 18:00etan hasita. Sarrera gonbidapen bidezkoa da. Gehienak "agortuta" badaude ere, gelditzen direnak kultur etxeko leihatilan eskuratu ahal izango dira egunean bertan, 17:00etatik aurrera.

Iaz estreinakoz egin zuten jarduera berreskuratu egin du merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak biltzen dituen elkarteak. "Gure burua erakutsi eta establezimenduetan dugunaren berri emateko modua da", laburbildu zuen Aterpeko lehendakari Ramon Ormazabalek. Ekimena elkartearentzat "garrantzi handia duenetakoa" dela aitortu zuen, eta eskerrak

eman zizkien laguntza eman dieten erakundeei. Baita ekitaldian aurkezpenean alboan izan zituen elkarteak kideei ere. Izan ere, haiek izango baitira oholtza gainean eta atzean lanean arituko direnak.

Desfileko partaideak

• Ileapaindegiak

Ana gizonetako ileapaindegia
Marian Olaizola
Marbell

• Moda

Alba moda
Olimi mertzeria
Mabel moda
Imagine jantzi denda

• Oinetakoak

Leder oinetakoak
Iturbe zapata denda

• Loreak

Ormazabal loradenda

• Kolaboratzaileak

Optika Irigoyen
Bizker inprenta
Amaia G. Caballero eskola

Bost bat hilabete daramatzate desfilea prestatzen. Ormazabalen ustez ahalegina "oso interesgarria izan da, gremio oso bestelakoak direlako, baina modari dagokionean koordinatuta daude". Ikuskizuna izatea nahi dute, jendea gustura egotea; baina helburu nagusia, *Lasarte-Orian bizi, Lasarte-Orian erosi* leloak barnebiltzen duen hori da. "Jendeak ikus dezala herrian aukera duela behar duen produktu hori erosteko".

Ildo beretik hitz egin zuten Nuria Fernandez zinegotziak eta Jesus Zaballos alkateak. Eskerrak eman zizkioten Aterpeari dinamizazioarengatik, kideen lanak "agerian uzten baitu oso merkatarari onak direla". Halaber, hainbat sektore batu eta herriko merkatarien artean sinergiak sortzeak duen garrantzia nabarmendu zuen alkateak; baita desfilea "oso ekimen dibertigarria" dela ere. Parte hartzera animatu zituen herritarrak eta aurten ilea moztzen utziko ez duela ohartarazi zuen. Orduan, tindatzea proposatu zioten, baina "horrenbestera ez naiz ausartzen" batekin uko egin zion eskaintzari.



Ttakunenea elkartean egingo dituzte sukaldaritza ikastaroak. TXINTXARRI

Sukaldean trebatzeko ikastaroa antolatu du Ttakun elkarteak

Ezagutzaren araberako bi ikastaro egingo dituzte. Irakasleak Basque Culinary Centerreko ikasleak dira

Txintxarri

Sukaldaritzan eskua probatu edo abilezian sakondu nahi dutenek aukera paregabea dute Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako ikastaro berrian.

Ezagutza maila guztiak kontuan hartuta, bi ikastaro antolatu dituzte 16 urtetik gorakoentzat. Batetik, suak piztu edo zartagina inoiz hartu ez dutenentzat, oinarritzko sukaldaritza ikastaroa egingo dute ostiraletan, 19:00etatik 20:30era. Saioak martxoak 29, apirilak 5, maiatzak 3 eta 10ean izango dira. Bestetik, zapore berriak edo bestelako

estiloak probatu nahi dituzten trebatuak asteazkenetan elkartuko dira, 18:00etatik 19:30era: martxoak 27, apirilak 3, maiatzak 2 eta 15ean.

Saioak Ttakunenea elkartean egingo dituzte eta irakasleak ez dira nolana hikoak, Mondragon Unibertsitateko Basque Culinary Centerreko ikasleak baitira.

Izena emateko Ttakun elkartera bertaratu, 943-37 14 48 edo 695 78 53 89 telefonoetara deitu edo kultura@ttakun.eus e-posta helbidera idatzi. Salneurria bazkideentzat 37 euro da, eta ez bazkideentzat, 40 euro.



TXINTXARRI

Ardoaren sekretuak, agerian

Aterpeak antolatutako ardo dastatzeen lehena egin zuten asteazken iluntzean Buenetxea tabernan. Izena eman zuten hamabost bat lagunek ardoaren inguruko sekretuen berri izan zuten bi orduko saioan. Azalpenak entzutearekin batera, entzundakoa probatzeko aukera ere izan zuten Olarra upeltegiko zuri, beltz eta gorriekin. Hori dena pintxoekin lagunduta, gainera.



Este hijo de siervos os advierte que la hora de vuestro fin está cerca.

Andrea Chenier opera proiektoria hainbat herritar hurbildu ziren. TXINTXARRI

Musikaz gozatzeko astea

VII. Musika Astea martxan da kultur etxean. Hurrengo astean Easo kapera gregoriantak eta Ana Belen Garciak eskainiko dute emanaldia topaketen saio berrian

Txintxarri

Andrea Chenier operak eman zion hasiera asteazkenean VII. Musika Asteari; lau egunez Manuel Lekuona aretoan musika izango da protagonista.

Lehenengo saioan opera zaleek denboran atzera egin zuten, asteazkenean. 1985. urtean Milango Schalan grabatutako opera ikusi zuten. Kalitate handiko bertsio horretan, Andrea Chenierren rolean Josep Carreras tenore ezaguna dago oholztan, eta harekin batera, Eva Marton sopranoa eta Piero Cappuccilli baritonoa.

Atzo, berriz, zuzeneko emanaldiaz gozatu zuten Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren herritarrek. Josean Vega tenoreak zuzenduta, Txanbela Otxoteak euskal folkloroko doinueta oinarritutako egitaraua eskaini zuen.

Horrez gain, etxeko txikiei eta familiei zuzendutako emanaldiak eskainiko dituzte. Gaur, ostiralez, esaterako, Demode Quartet taldeak *Epa txiki!* ikuskizuna oholztaratu du. Laukoteak umorearen eta euskal soinuaren moldaketen bitartez, estilo musikal guztiek

euskal musika oinarri dutela azalduko dute.

Asteari amaiera emateko, bihar, larunbata 20:00etan *Katiuska* zarzuela ikusgai izango da. Sasibill elkarte lirikoko abesbatza eta orkestrak Pablo Sorozabal musikagilearen lehen zarzuela eskainiko du. 1931. urtean estreinatuta zuten, eta 1918. urteko Errusiar Iraultzan dago oinarritua. Amodio, traizio eta politika kontuak nahastu dituzte lan honetan. Sarrera 12 eurotan jarri dute.

Musika Topaketa

Halaber, hurrengo ostiralean, martxoaren 22an, 19:30ean, musika zaleentzako Musika Topaketen saio berria egingo dute. Ama Brigitarren komentuan, kantu eta organo doinuak izango dira nagusi. Ana Belen Garcia organo joleak Easo kapera gregoriantarekin bat egingo du. XVI. eta XVIII. mendeko doinuekin osatu dute egitaraua. Hala nola, egile ezezaguna duten *Bayle del gran duque* eta *Variaciones sobre la gayta* saioak, eta Buxtehude eta P. Corneten lanak eskainiko dituzte.

Eskubideak eta urraketak

Herriko euskal presoaren egoeraren berri eman zuten Anais Funosas Bake Bidean elkarteko kideak eta Maritxu Paulus abokatuak asteartean, Mercero aretoan. Lasarte-Oriako Sare Herritarrak presoaren eskubideen urraketak salatzen antolatuta dituen hitzaldietako bat da. Martxoaren 26an, *Azken amasa arte* dokumentala emango dute, eta senideek haien bizipenak kontatuko dituzte.



TXINTXARRI

UDALEKUAK LH3-LH6

LH: EGONALDIAK ATERPETXEAN

LEZANA DE MENA (Lezana)

• LH3-LH4 uztailaren 15tik 22ra

TTAKUNEKO
BAZKIDEAK

167€

BAZKIDE
EZ DIRENAK

180€



+ Udako Txokoak

Uztailaren 2tik 12ra, Udako Txokoetan lagunak egin eta gero... abentura elkarrekin jarraitzeko aukera izango duzue Lezanan.

Jangela zerbitzua eskainiko da! (55€)

BAZKIDE
EZ DIRENAK

255€

10:00etatik

270€

9:00etatik

Ttakuneko bazkideentzat prezio bereziak

DONEMILIAGA (Errotazarra)

• LH5-LH6 uztailaren 2tik 13ra

TTAKUNEKO
BAZKIDEAK

231€

BAZKIDE
EZ DIRENAK

250€



+ Udako Txokoak

Donemiliagako aterpetxean egon eta gero... uztailaren 15etik 30era abentura eta kirola Udako Txokoetan.

Jangela zerbitzua eskainiko da! (55€)

BAZKIDE
EZ DIRENAK

315€

10:00etatik

330€

9:00etatik

Ttakuneko bazkideentzat prezio bereziak

KTG kanpaldiak DBH1-DBH4

DBH: KTG KANPALDIAK

DBH 1 eta 2
INGO AL DEU BA?

uztailaren 3tik 14ra



DBH 3 eta 4
MEZTIJAIA!

uztailaren 16tik 27ra



TTAKUNEKO
BAZKIDEAK

241€

BAZKIDE
EZ DIRENAK

260€



Izen ematea: Ttakuneko bazkideentzat, iaz ibilitakoentzat eta Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko gaztetxoentzat: martxoaren 20tik martxoaren 25era (barne). Gainerakoentzat: martxoaren 26tik maiatzaren 10era.

Oihartzun gero eta ozenagoa kaleetan

Kalera atera dira Lasarte-Oriako emakumeak. Gizartean, lan munduan eta bizitzan daukaten garrantzia aldarrikatu eta ikusarazi dute. M8ko Asanbladako kideek makina bat ekintza antolatu dituzte. Udalak eguerdian deitutako elkarretaratzera ere joan dira; Okendo bete dute

Txintxarri

Goizeko hamarrak. Bulegoko atea ireki, eskailerak igo, eta ezohiko giroa. Ezohiko sentsazioa. Zerbait (norbait, hobe esanda) berezia faltako balitz bezala. Pertsona bakarra ez; pertsona asko. Ttakun Kultur Elkartean (eta TXINTXARRI aldizkarian) lan egiten duten emakumeek bat egin zuten ostiraleko grebarekin, beste lasarteoriatar askok bezala. Gero eta ozenago entzuten da mobilizazioaren oihartzuna, gero eta ozenago berdintasun eta parekidetasun aldarriak.

Lasarte-Oriako M8ko Asanbladak makina bat ekintza egin zituen. Esate baterako, karabana feminista. Hipodromotik abiatu ziren oinez, bizikletan zein autoan zihozten ehunka emakume. Aldarrikapen afixak zeramatzen eskuetan, more kolorekoak, zapi eta banderak bezala. Okendon bukatu eta udalak deitutako elkarretaratzearekin bat egin zuten han.

Kontzentratu ostean, martxan jarri ziren berriro ere ehunka

emakume. Kalejira egin zuten erdigunean barrena.

Kalejira eta eserialdia

Oriarte institutura joan ziren lehenengo. Bertako ikasleek salatu zituzten ikasgeletan jasan behar izaten dituzten eraso matxistak: "Nazkatuta gaude eskatu ez ditugun piropoak jasotzeaz, nazkatuta gure gorputzen jabe ez sentitzeaz". Emakumeek lan munduan pairatu behar duten prekarietatea, soldata baxuagoak, baldintzak eta beste hamaika errealitate bidegabe ere zabaldu zituzten kalejiran parte hartu zutenek. Horretarako, Lanbidek Iñigo de Loyola kalean daukan bulego parera joan ziren. Maialen Aranburuk eta Maider Izagirrek hitz egin zuten han; ELA eta LAB sindikatuetan egiten dute lan, hurrenez hurren. Izagirrek nabarmendu zuen grebak jarraipen handia izan zuela "feminizatutako hainbat sektoretan". Garbikuntza, hezkuntza eta adineko pertsonen zaintza aipatu zituen.

Azken sektore horretan lan egiten duten herritar asko ari dira beharrezan Atsobakar egoitzan. Hori izan zen kalejiraren hirugarren geldialdia. Zain zituzten han erresidentziako hainbat langile, afixa zuri eta zabala eskuetan: *Gipuzkoako hitzarmena orain! Atsobakar borrokan*, irakur zitekeen.

Egoitzatik jaitsi, Tajamarreko biribilgunea zeharkatu, eta Kale Nagusira iritsi zen kalejira feminista. Eserialdia egin zuten han, ordu erdiz, aldarrikapen eta protesta oihu artean. Mobilizazioetan parte hartu ezin izan zuten pertsonak ere gogoan izan zituzten: "Emakume* bollera trans presoak kalera! Espetxeak apurtu!".

Okendon bazkaldu zuten, eta arratsalderako indarrak hartu. Mosaikoa egin eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako hainbat kidek *performance* bat eskaini zuten arratsaldean. Gero Donostiara joan ziren, manifestazio erraldoian parte hartzera.



Emakume eta herritar ugari bildu zen eguerdian Okendo plazan egin zuten kontzentrazioan.



Bizikletan, oinez eta kotxeetan karabana osatu zuten goizean, herriko kaleetatik barrena aldarrikatzeko. TXINTXARRI



Bazkari autogestionatuaren ostean, mosaikoa osatu eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako





Udalekoarekin bat egin zuten Asanblada feministako kideek. TXINTXARRI



Grebaren bost ardatzak oinarri, kalejira egin zuten herriko hainbat puntutan geldineak eginez. TXINTXARRI



Kalejira amaitu eta eserialdia egin zuten, udaletxe zaharren aurrean. TXINTXARRI



kideek performance bat egin zuten. Testu bat ere irakurri zuten. TXINTXARRI



Larunbatean ere ekintzak izan ziren. Musikaren laguntzarekin zunba saioa egin zuten emakumeek eta haurrek. TXINTXARRI

UDAKO TXOKOAK 2019

Herria, udara, euskara

Aurtengoan ere hamaika sorpresa

ONLINE EGITEKO AUKERA!

Adi www.txintxarri.eus webgunean



Herriko eragileekin elkarlana eta inguruko udalekuetako haurrekin topaketak



Izen emate epea zabalik: apirilaren 1etik maiatzaren 10era Ttakun Kultur Elkartean eta online

TXIKI, TXIKI, TXIKIA...

HH3-HH4

(2014 eta 2015 bitartean jaiotakoak)

EKINTZAK

- Psikomotrizitate saioak astero, psikomotrizitate materialarekin.
- Ipuinetatik eta jolasetik abiatuta, asmakuntza plastikoa, gorputz adierazpena eta soinuarekin jolasean arituko gara.
- Sukaldaritza tailerrak, ur jolasak, eskulanak...
- Irteerak: Zubietako frontoira 15:30ak arte irteera, Lasarte-Oriako parkeetara eta udal igerilekura joango dira besteak beste.
- Festak eta jaialdiak.
- Azken eguneko festa.



Handitzen-handitzen!: HH5-LH2

(2011 eta 2013 bitartean jaiotakoak)

EKINTZAK

- Gure begiraleekin *Jostakirola* saioak, kirola eta jolasa uztartzeko saioak material bereziarekin.
- Gorputz adierazpenaren bidez mundu berri bat eraikiko dugu.
- Talde jolasak: ur jolasak, ginkana, mendi irteera...
- Irteerak igerilekuetara eta hainbat bisita gidatu.
- Jaialdiak eta azken festa.

Adi LHI eta LH2: Larraulera goaz 4 egun!!

Uztailaren 2tik 12ra Udako Txokoetan. 15etik 18ra udaleku itxietako txanda bat eta 19tik 30era amaiera bikaina Udako Txokoetan!

Goiztxoko gabe	Goiztxokorekin
Hilabetea: 170€	Hilabetea: 196€
1. hamabostaldia: 147€	1. hamabostaldia: 162€
2. hamabostaldia: 125€	2. hamabostaldia: 136€

**10€-ko deskontua 2 anai-arrebek eta 20€-ko deskontua 3 anai-arrebek parte hartzen badute udalekuetan.*

Abentura eta kirola: LH3-LH6

(2007 eta 2010 bitartean jaiotakoak)

EKINTZAK

- Abenturazko ekintza bereziak.
- Ur jolasak.
- Gure begiraleekin *jostakirola* saioak, kirola eta jolasa uztartzeko saioak, material bereziarekin.
- Gorputz adierazpenaren bidez mundu berri bat eraikiko dugu.
- Talde jolasak eta tailerrak.
- Irteerak: igerilekuetara, hondartzara, bibak...
- Azken festa.



AUKERA PAREGABEAK

DONEMILIAGA + UDAKO TXOKOAK LH5-LH6

Errotazarra aterpetxean egon eta gero... uztailaren 15etik 30era abentura eta kirola Udako Txokoetan.

**BAZKIDE
EZ DIRENAK**

315€ | **330€**
10:00etatik | 9:00etatik

Ttakuneko bazkideentzat prezio bereziak

UDAKO TXOKOAK + LEZANA LH3-LH4

Uztailaren 2tik 12ra, Udako Txokoetan lagunak egin eta gero... abentura elkarrekin jarraitzeko aukera izango duzue Lezanan.

**BAZKIDE
EZ DIRENAK**

255€ | **270€**
10:00etatik | 9:00etatik

Ttakuneko bazkideentzat prezio bereziak



Izen ematea online egiteko aukera egongo da. Bestela beheko orria bete eta Ttakunen bulegoan aurkeztu:

Ordutegiak eta prezioak

Uztailaren 2tik 30era

Ordutegiak	Seme-alaba bakarra	2 anai-arreba	3 anai-arreba	
HH3-HH4 Hilabete osoa	10:00-13:00	100€	90€	80€
	09:00-13:00	130€	120€	110€
HH5-LH6 Hilabete osoa	10:00-13:00	110€	100€	90€
	09:00-13:00	140€	130€	120€
HH3-HH4 Hamabostaldia	10:00-13:00	60€	55€	50€
	09:00-13:00	75€	70€	65€
HH5-LH6 Uzt. 2tik 12ra edo uzt. 15etik 30era	10:00-13:00	65€	60€	55€
	09:00-13:00	80€	75€	70€

*Ttakuneko bazkideek deskontua izango dute udalekuetako prezio guztietan.

Espazioak

TTAKUNENEA (Iñigo de Loiola kalea) **eta**
ORRIARTE (Landaberri eraikina, Pintore Kalea, 2)

Ordaintzeko modua

- Ttakuneko bulegoan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabank: ES61 2095-5048-18-1061552351 kontuan. Diru-sarreraren kontzeptuan haurren izen-abizenak jarri behar dira.
- Matrikulazio orria sinatuta eta ordainagiria.

GOITXOKO ZERBITZUA

09:00etatik 10:00etara

JANGELA ZERBITZUA

> 15:15ak arte.

Hilabetea: 95 €

Hamabostaldia: 55 €

*Plazak geldituz gero egun solteak har daitezke.

Matrikulazio orria

Izen-abizenak: _____

Gizarte segurantzaren zenbakia: _____

Jaioteguna: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____ e-maila: _____

Ikastetxea: _____

Ikasmaila: _____

Goitzoko zerbitzua: Bai Ez

Jangela Zerbitzua: Bai Ez

Seme-alaba kopurua Udako Txokoetan: 1 2 3

Kiroldegiko bazkide: Bai Ez

Hilabete osoa lehen hamabostaldia bigarren hamabostaldia

Oharrak/alergia/dieta berezia _____

Lasarte-Orian, 2019 / __ / __ Sinadura:

Oharra: Matrikulazio orri hau sinatzerakoan onartutaz emango da adierazitako araudia eta egiazkoak direla azaltzen diren datuak.

Bigarren postua finkatzea helburu

Liga erregularra bukatzeko bost partidaren faltan, kanporaketa jokatzeko sailkatuta dago Ostadar SKT. Asteburuan kategoriako liderraren aurka galdu dute, 38-50; urduri hasi dira urdin-beltzak, eta, bigarren zatian erreakzionatu badute ere, ez da aski izan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Bazirudien Maialen Chourraut kiroldegiko saskiak txikiagoak zirela larunbatean. Ostadar SKTko jokalariei hori iruditu zitzaizen behintzat. 60 puntutik gora sartzen dituzte partidaro, batez beste; aurrekoan, atsedendirako, 11 besterik ez ziren igo markagailura. Urduri hasi zuten partida, erritmo egokia topatu ezinik, eta behar baino baloi gehiago galtzen. Txintxu ISBk ez ditu horrelako opariak aprobeztatu gabe uzten. Horregatik da probintzial 1. mailako liderra.

Liga erregularreko bi talde onenen arteko norgehiagokak ikusmira handia sortu zuen, eta kiroldegiko harmailak ohi baino beteago zeuden, Ostadarren bandera urdin-beltza eta guzti. Klubak partida ikustera joateko deialdia egin zuen pasa den astean, eta eman zuen fruitua. "Asko nabaritu genuen zaleen indarra; gozamina da giro



Ostadar SKTko jokalariek gogotik borrokatu zuten baloi bakoitza. TXINTXARRI

horrekin jokatzeko", nabarmendu du Ander Otaegi entrenatzaileak.

Ostadarreko jokalariek oso urduri ekin zioten partidari. Beti bezain gogotsu, baina asmatu ezinik. Erritmo oso bizian jokatzeko dute urdin-beltzek, baina

lehen zatian ezin izan zuten bosgarren martxa hori sartu. Txintxu ISBk ongi aprobeztatu zituen lasarteoriatarren hutsegiteak, eta kontraerasoan saskiratu zituen puntu gehienak. Ostadarrek baino rotazio

eskasagoa zutela ikusita, aurreneko bi laurdenetan kemen handiz aritu ziren, ahalik eta abantaila gehien lortzeko asmoz. Baita lortu ere: 11-31ko emaitza erakusten zuen markagailuak.

Datu bat: Ostadarrek bigarren laurdena bukatzeaz zela saskiratu zuen arratsaldeko lehenengo hiruko jaurtiketa. Partida irabazi balute bezala ospatu zuten zaleek.

Susperraldia bigarren zatian

Bazirudien partida lehen zatian bukatu zela: hogeituneko alde, kategoriako liderraren aurka indarrak neurtzen, eta sentsazio txarrak. Ostadar SKT'k ez zuen amore eman eta suspertu egin zen. Eta nola, gainera. 17-3ko partziala sartu zuten azpeitiarrei. Kantxa osora presionatu zuten, liderra estu hartuz, eta lehen zatian saskiratu ez zituzten baloiak puntu bihurtuz. Zaleen animoek ere lagundu zuten, jakina. Sei puntura jarri ziren 30. minutuan. Dena, erabakitzeke.

Txintxu ISB ez da kategoriako talde onena kalitate askoko jokalariek dauzkalako soilik. Gazteak izanda ere, beteranok bezala jokatzeko dute, eta badakite itsasoa zakar dagoenean ez hondoratzen. Jokatzeko modua aldatu zuten, norgehiagoka eta aurkaria anestesiatsen saiatu, eta aurreko hiru laurdenetan lortutako abantaila kudeatzen. Lortu zuten. Utzi zieten lasarteoriatarrei itsasertza ikusten, baina ez zapaltzen.

Azkenean, 38-50. "Lehen itzulian antzeko zerbait gertatu zen: gaizki hasi ginen, erreakzionatu egin genuen gero, baina ez zen nahikoa izan", gogoratu du Otaegik.

Bost partidaren faltan

Liga erregularra bukatzeko bost norgehiagoka falta dira. Nahiko argi dago zein geratuko den lehenengo, atzo irabazita hiru partidako abantaila daukatelako azpeitiarrek. Ostadarren helburu nagusia bigarren postua poltsikoratzea da orain. Hirugarrenarekiko abantaila polita dauka oraindik: hiru neurketa.

Lehen fasea bukatzean hasiko dira kanporaketak. Zortzi talde sailkatuko dira: lehenengoak zortzigarrenaren aurka jokatu du; bigarrenak, zazpigarrenaren aurka; hirugarrenak, seigarrenaren aurka; eta, azkenik, laugarrenak bosgarrenarekin neurtuko ditu indarrak. "Kanporaketako talde guztiak dira maila handikoak, baina garrantzitsua da bigarren postuari eustea, hobe delako zazpigarrenaren aurka aritzea bosgarrenaren aurka baino".

AURRENEKO BI LAURDENETAN 11 PUNTU BESTERIK EZ ZITUEN SASKIRATU OSTADARREK

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Leintz Arizmendi KE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Mojategi, Arrasaten.
ERREGIONALEN GORENGOA
Touring KE - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Fanderia, Errenterian.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Anaitasuna CD - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. San Juan, Azkoitian.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Kostkas KE Larunbata. 15:30. Michelin Kirol gunean.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Beti Ona CD Larunbata. 13:00. Michelin Kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Ordizia KE - Ostadar SKT A Larunbata. 10:30. Altamira, Ordizian.
INFANTIL OHOREZKO TXAPELDUNEN FASEA
Ostadar SKT - Martutene KE Larunbata. 10:00. Michelin Kirol gunean.

INFANTIL TXIKIAK, PARTE HARTZEA
Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT Igandea. 13:40. Berio, Donostian.
INFANTILEN 1. MAILA, KOPA
Euskalduna SD - Texas Lasarteerra CF Larunbata. 09:30. Ubitarte, Andoainan.
Ostadar SKT B - Tolosa CF A Larunbata. 11:30. Michelin Kirol gunean.
Tolosa CF B - Ostadar SKT A Larunbata. 10:00. Usabal, Tolosan.
ARETO FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Avenida taberna - Bar Buenetxea Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.
Academia London - Patricio Cocktail Bar Larunbata 10:15. Michelin Kirol gunean.
Trumoi taberna - Viña del Mar Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
Asador Irigoien - Insausti taberna Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.
3. NAZIONALA
Antiguoko KE - Gora Bilbao Redblue Igandea. 12:00. Pio Baroja kir., Donostian.

GIPUZKOAKO SENIORRA
Lauburu KE - Garoa Taberna Ostirala. 21:30. Ibarra.
GIPUZKOAKO I. MAILA
Aldaz Klinika - Herrikide Ostirala. 20:50. M. Chourraut kiroldegian.
GIPUZKOAKO II. MAILA
Ostiko sindikato taberna - ISU Leihoak Ostirala. 21:45. Beraungo frontoia, Errenterian.
GIPUZKOAKO JUBENILAK
Bar Lasarte - TEEP Samaniego Orixe Larunbata. 11:20. M. Chourraut kiroldegian.
GIPUZKOAKO KADETEAK
Erain - Balerdi Harategiak Larunbata. 10:30. Tecnun, Donostian.
SASKIBALOA
SENIOR LEHENENGO MAILA
Atletico San Sebastian - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Aiete kir., Donostian.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea Larunbata. 18:00. M. Chourraut kiroldegian.

JUNIOR PARTE HARTZEA
Ostadar SKT B - Ibaeta Bera Bera Igandea. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.
KADETE PARTE HARTZEA
Ostadar SKT B - CD Internacional Igandea. 11:00. M. Chourraut kiroldegian.
IGERIKETA
ESPAINIAKO NEGUKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo Nora Imaz eta Aintzane Sarobe infantil mailako Espainiako txapelketan ariko dira. Gaurtik igandera. 09:30etik 12:30era eta 17:30tik 19:30era. Santa Olaya igeriketa Kluba, Gijonen.
EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo Mikel Ensal, Leire eta Ainhoa Martin, Nahia Zudaire, Nathalia E. Torres, Nerea Santos eta Unai G. Somovillak parte hartuko dute lehiaketan. Larunbata. 10:00. Amaya kir., Iruñean.

LASTERKETAK
UDABERRIKO LASTERKETA
Herriko hainbat korrikalarik parte hartuko dute EHUK eta Donostiarrak elkarteak antolatutako 10 kilometroko lasterketan. Igandea. 10:00. Europa plaza, Donostian.
LARRAUL-ERNIO-LARRAUL MENDI LASTERKETA
Herriko hainbat korrikalarik parte hartuko dute 15 kilometroko mendi lasterketan. Igandea. 10:30. Larraulen.
PILOTA
BINAKAKO TXAPELKETA, IGOERA
Arteaga II - Erasan / Bakaikoa - Aranguren Larunbata. 17:45. Labrit frontoia, Iruñean.
INFANTILAK, 1. MAILA
Intxurre 2 - Intza Ostirala. 18:30. Elorri, Alegian.
INFANTILAK, 2. MAILA
Izurun - Intza Ostirala. 18:30. Antigua, Donostian.



Irungo igerilekuan lehiatu ziren Buruntzaldeako sei gaztetxoek maila ona erakutsi zuten Neguko Txapelketan. BURUNTZALDEA IKT

Domina eta errekor ugari lortu ditu Buruntzaldeak

Gipuzkoako Neguko Saria eta Neguko Gipuzkoako Txapelketan lehiatu dira herriko igerilariak joan den asteburuan. Txukun ibili dira gaztetxoak Lasarte-Orian eta Irunen, dominak irabazi, norberaren emaitzak hobetu eta zenbait errekor onduta

Txintxarri

Errekor eta marka pertsonal ugari erdietsi zituzten pasa den asteburuan Buruntzaldea IKTko gaztetxoek. Izan ere, Irunen eta Lasarte-Orian jokaturako txapelketetan maila ona erakutsi zuten; batetik, junior eta absolutu mailako Gipuzkoako Neguko Saria; bestetik, Neguko Gipuzkoako Txapelketa.

Irunen lehiari aritu zirenen artean sei lasarteoriatar: Unai G. Somovilla eta Nerea Santos infantilak absolutu mailan, Leire eta Ainhoa Martin junior eta absolutu mailan, Mikel Esnal eta Eneko Elizasu. Azken Portuko igerilekuan egindako ahaleginaren uzta bederatzi urrezko domina, zilarrezko lau eta brontzezko hiru izan ziren.

Seikotetik hoberen aritu zirenak Leire eta Ainhoa Martin izan ziren. Launa domina eskuratu zituzten. Lehenak, hiru urre eta zilar bat, bigarrenak, aldiz, kolore guztietakoak, urre bat, zilar bat eta bi brontze. Mikel Esnalek zilar eta brontze bana zintzilikatu zituen lepotik, eta

Nerea Santosek, 1.500 metrotan irabazteagatik, urrezkoa.

Horrekin batera, hemeretzi marka pertsonal, taldeko zazpi errekor eta Euskadiko 16 urteko errekor berri bat ere ezarri zituzten. Hain zuzen ere, Leire Martinek gauzatu zuen 400m lau estilotan, 4:55,85 marka eginda. Era berean, maila horretako errekor berria ere bada. Ainhoa Martinek, berriz, 100m librean eta 100m lau estilotan 16 urteko eta absolutu mailako taldeko denbora onena egin zuen.

Asteburuan, Gijonen eta Iruñan

Herriko norgehiagokan parte hartzea mugatuagoa izan zuten bertako igerilariak. Zehazki, Unax Goenaga, Yaiza Martinez eta Garazi Irigoras lehiatu ziren Maialen Chourraut kiroldegiko

**LEIRE MARTINEK
400M LAU ESTILOTAN
EUSKADIKO 16
URTEKO ERREKOR
BERRIA EZARRI DU**

uretan infantil, junior eta absolutu mailetakoko probetan.

Goenagak 200m librean eta lau estilotan bere marka pertsonala hobetu zuen, laugarren eta hirugarren amaituta, hurrenez hurren. Ondo aritu bazen ere, ez zuen Udako Gipuzkoako Txapelketarako gutxienezko lortu. Irigoras, aldiz, 50m eta 100m tximeletan aritu zen. Lehenengoan, marka pertsonala eta brontzea eskuratu zituen, bigarrenan, berriz, zilarra kolkoratu zuen. Eta azkenik, Martinez laugarren izan zen 100m librean eta marka pertsonala lortu zuen.

Asteburu honetan, beste bi zita garrantzitsu izango dituzte Buruntzaldea IKTko igerilariak. Batetik, Nora Imaz eta Aintzane Sarobe Gijonen izango dira 14tik 17ra bitartean. Infantil mailako Espainiako Neguko Txapelketan. Bestetik, Mikel Esnal, Leire eta Ainhoa Martin, Nahia Zudaire eta Unai G. Somovilla nor baino nor ariko dira Iruñan jokaturako duten Euskal Herriko Neguko Txapelketan.



DONOSTIA TURISMOA

Marka guztiak hausten

Lilatoiak 30 urte bete ditu aurten, sasoi betean. 6.525 emakume irten ziren igandean, inoiz baino gehiago, eta asko atera ezinik geratu ziren izen ematea berehala bete zelako. Ehun lasarteoriatar baino gehiagok parte hartu zuten Lorea Ayala donostiarrak irabazitako 5 kilometroko lasterketan.

Aimar Sukunza, Gipuzkoako txapeldun duatloi esprintean

Gazteak kadete kategorian lortu du garaipena, Eibarren. Andoni Ilarramendi bigarren izan da beteroan.

Txintxarri

Hasi berria da triatloiko denboraldia, baina ongi ekin diote Lasarte-Oriako kirolariak. Gipuzkoako duatloi txapelketa jokatu dute asteburu honetan Eibarren, eta bi domina eskuratu dituzte lasarteoriatarrek. Kadeteetan Aimar Sukunza izan da garaile. Beteranoetan, berriz, zilarra irabazi du Andoni Ilarramendik.

Esprint duatloia da Eibarkoa. Alegia, ia ordubeteko ahalegina. Bost kilometro korrika, 18 bizikletan, eta azken 2,5ak korrika

egin dituzte kirolariak. Hasi eta buka gogor eta azkar egin behar dute.

Sukunzak 57:43ko denbora egin zuen. Bere kategorian bigarren helmugaratu zen, baina nahikoa izan zuen Gipuzkoako txapela eskuratzeko. Iaz Gipuzkoako esprint triatloiko txapeldun geratu zen ere.

Ilarramendik, ordea, 54:51 minututan osatu zuen proba. Gipuzkoako bigarrena, eta bere kategorian laugarren sailkatu zen. Probaren azken zatian galdu zituen hainbat postu.

Abian da squash txapelketan parte hartzeko izen ematea

Apirilaren 1ean hasiko dituzte XXXI. squash txapelketako partidak. Parte hartu nahi dutenek hilaren 22a arte, ostirala, dute Maialen Chourraut kiroldegiko kafetegian izena emateko. Prezioa 10 euro da udal kiroldegietako bazkideentzat. Jokalariak 14 urtetik gora izan behar dute. Hilaren 28an partaideentzat informazio bilera egingo dute kiroldegian, 19:00etan.

Snorkel urpekaritza hastapen ikastaroa antolatu dute

Udal Kirol Zerbitzuak snorkel urpekaritzan lehen urratsak egiteko aukera emango die 2007-2010 urteen artean jaiotako neska-mutilei. Jarduera hilaren 23an, larunbata, aurrera eramango dute ordubeteko bi saiotan: 16:30-17:30 eta 17:30-18:30. Ikastaroa doakoa da bazkideentzat, baina parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman behar dute kiroldegian, hilaren 21a arte.



Defentsa lanetan oso ongi aritu zen Garoa Taberna Eguzki.. TXINTXARRI

Garoa Tabernak aurre egin dio Ordizia liderrari

Garoa Taberna Eguzkik itxura ona eman du kategoriako liderraren aurka, baina hori ez da nahikoa izan punturen bat poltsikoratzeko. Kalitate gehiago dauka Ordiziak gaur-gaurkoz, eta hori baliatu du Maialen Chourraut kiroldegian jokaturako partida irabazteko

Iñigo Gonzalez

Ligako partida guztiak irabazi ditu Ordiziak. Hamabi jokatu, eta 36 puntu bildu. Kalitate gehien daukan taldea da, iaz estatu mailan konpetitu zuen. Kategoria bat beherago ari da aurten, baina berez gorago egoteko maila dauka. Hori guztia kontuan hartuta, pozik egon daitezke Garoa Taberna Eguzki taldeko jokalariek. Larunbatean 0-3 galdu bazuten ere, itxura ona eman zuten. Ez daude hain urrutiti.

Ordiziarena izan zen baloiaren jabetza hasieratik, baina erasoan ez ziren ibili ohi bezain fin. Garoa Tabernako jokalariena da meritua; lan defentsibo bikaina egin zuten. Azpimarratzekoa baita ere herriko taldeko bi atezainen lana. Sekulako geldiketarik egin zituzten, bigarren zatian batez ere.

Ordizia bezalako taldeek badaukate ezaugarri bat. Ez zituzten erasoko jokaldi asko egin, baina jokalariek hain onak direnez, edozein da gai aurkariak

driblatzen hasi eta atezainaren aurrean geratzeko. Hori egin zuten aurreneko zatian. Jokalari ordiziarrak, jaurti ordez, erabaki zuten bigarren zutoinean bakarrik zegoen taldekideari pasatzea. Azken horrek baloia sareetara bidali eta 0-1eko sartu zuen.

Bigarren zatian Ordiziak jarraitu zuen agintzen, eta partida hondarrean lortu zuen alde handitzea, minutu gutxitan bi gol sartuz. Azkenean, 0-3 irabazi zuten kanpoko taldeak.

Asteburu honetan ere ez du lan erraza izango taldeak, aurrean Lauburu KE Ibarra bigarren sailkatua izango baitu. Garoako defentsa sendo mantentzen bada, zail jarriko dio Ibarra taldeari garaipena lortzea.

ORDIZIARENA IZAN ZEN BALOIAREN JABETZA HASIERATIK, BAINA ERASOAN EZ ZIREN FIN IBILI

Bestalde, Gipuzkoako 1. mailan ari den Aldaz Hartz Klinikak sekulako martxa hartu du azkeneko neurketetan: hiru irabazi ditu segidan. Bilkoin Legorretarekin neurtu zituen indarrak ostiral gauean, eta 0-3 irabazi. Unai Ituartek, Mikel Gonzalezek eta Sevik sartu zituzten golak.

Gipuzkoako 2. mailan, berriz, garaipen bikaina zakuratu zuen ISU Leihokoak. Lehen zatirako 3-0 jarri ziren aurretik. Laskorainek ez zuen hutsean joan nahi eta penaltiz lortu zuen gola, 3-1. ISUko jokalariek, ordea, ez zieten arerioei markagailuan gerturatzeko beste aukerarik emango. 4-1 irabazi zuten azkenean. Castik bi gol sartu zituen; Aitor Hernandok eta Ismael Rodriguezek, berriz, bana.

Harrobiko taldeek gehiago sufritu dute asteburu honetan. Bar Lasarte Eguzkik 8-2 galdu du Herrikideren aurka. Balerdi Harategiak, berriz, 0-6 Lauburu KE Ibarren kontra.



Buruntzazpiko Txirrindularitza eskolako mutilak, Ibaetako podiumean. BURUNTZAZPI

Carbayeda eta Etxeberria, Ibaeta eta Zarautzen garaile

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek errepideko denboraldia hasi dute eta bi garaipen erdietsi dituzte

Txintxarri

Buruntzazpiko kadeteek pistako denboraldia amaitu zuten bezala hasi dute errepidekoa: podiumean. Asteburuan Erreterria, Donostia, Zarautz eta Azpeitian lehiatu dira. Podiumeko maila ezberdinetan izan dira taldeko txirrindulariak. Kadete mailan bi garaipen erdietsi dituzte. Beñat Carbayedak eta Haimar Etxeberriak Ibaeta eta Zarautzko probak irabazi zituzte, hurrenez hurren, eta taldeko saria eskuratu dute bietan.

Larunbatean, Ibaetako lasterketan Beñat Carbayeda garaile izan da. Lasarte-Oriako gazteak bakarrik igaro du helmuga, ihes egin ostean. Tropela bederatzi minutu geroago iritsi da helmugara. Horretan lehen postuetan egoteko lehiatu da Haimar Etxeberria eta azkenik laugarren izan da. Daniel Fursenko, berriz, bigarren

taldetxo batean iritsi da eta hamaseigarren izan da.

Hori amaitu eta hogeita lau ordu pasa baino lehen, Haimar Etxeberria gailendu da Zarautzeko lasterketan. Proba osoan tropela batera mantendu da eta azken metrora arte borrokatu behar izan du gazteak garaipena. Beñat Carbayeda zortzigarren izan da eta Daniel Fursenko hogeita laugarren.

Taldeko txikiak ere eman dute lehen poza larunbatean. Erreterriako lasterketan parte hartu dute Bazpiko alebin eta infantilek eta Adur Tapia infantila hirugarren izan da.

Bestalde, juniorrek ez dute zorterik izan. Euripean Asier Pozo eta Jaime Romerok parte hartu dute Azpeitiako San Jose sarian. Erorikoa jasan arren, Romerok hamabigarren amaitu du proba. Pozok, berriz, ezin izan du aurrera jarraitu.

Enara Gonzalez, Espainiako txapelketako finalean


Valentzian jokatu zuten asteburuan 18 urtez azpiko Espainiako pistako atletismo txapelketa. LOKEko Enara Gonzalez gazteak luzera jauziko finalean lehiatu zuen, eta 5.35 metroko markarekin zortzigarren amaitu. Ondo hasi zuen lehiaketa Enarak, bigarren jauzian 5,35 lortuta; 5,40ko bere marka onenetik gertu. Horrek gainera

zortziko finalean egoteko txartela eman zion Lasarte-Oriako gazteari. Tamalez, azken hiru saiakeretan ez zen hortik gorako jauzirik egiteko gai izan. Txapelketan guztira lau baleko jauzi egin zituen: 5,12; 5,13; 5,29 eta aipatu 5,35 metro lortuta. Edonola, Oscar Goikoetxea entrenatzaileak TXINTXARRI-ri azaldu moduan, LOKEko atletarentzat, jada, saria zen Espainiako txapelketan egotea. 25 partaideetatik 8. postua lortu izana, beraz, emaitza ona da.


ZORION AGURRAK




Markel
Zorionak gizontxo. Ondo pasa zure egun handian. Maite zaitugu!!!



Oier
Zorionak maitia! 12 urte zoriontsu zurekin! Asko maite zaitugu. Unax, Maddi, aita eta ama.




Iزارo
Zorionak printzesa!!! Oso ondo pasa zure 3. urtebetetzean. Muxu pila familia guztiaren partetik.



Oihane
Egun polita pasa dezazula izotz gainean patinatzen zuren lehengusu eta lagunekin. Zorionak zure 9 urtetzarrengatik, zure familia osoaren partetik.



Markel
Zorionak Markel! Zure guraso eta senideen partetik.



Irati
Zorionak Pippi Langtrumpf! Urtebete zaharrago izan arren, jarraitu beti bezain alai eta bihurri! Aurten muxua itsasoz beste aldetik doakizun arren, beti bezain gertu gu!

Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu horretarako

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

HILDAKOAK

Celso Baz Martin. Martxoaren 9an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 15 LASA
Larunbata, 16 GIL
Igandea, 17 GIL
Astelehena, 18 ACHA-ORBEA
Asteartea, 19 GIL
Asteazkena, 20 URBISTONDO
Osteguna, 21 GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:


ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:


OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZTA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 15




Larunbata, 16




Igandea, 17




Astelehena, 18



Asteartea, 19



Asteazkena, 20



SUDOKUA

6		7			2			9
8				5			6	
		4	8	6		7		2
		6	4		9	5		
				2		6		1
1	7			3				8
4			6	7		1		
	1	8			5			
7			1				2	3

OHARRAK

Posta bidezko botoa

Apirilaren 28ko Hauteskunde Orokorretan postaz emateko asmoa duten herritarrek, apirilaren 18ra arte dute eskaera egiteko.

Alderdi politikoei haien laguntza eskaintzen diete herritarrei tramiteak egiteko. PSE-EEko egoitzara (Ganbo 1) astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara hurbildu daitezke herritarrak edo 943 372 869 zenbakira deitu dezakete.

Irteera Bermeora

Biyak Bat elkarteak kideek Bermeora irteera antolatuta dute martxoaren 21ean. Bermeo ezagutzeko bisita gidatua egingo dute, besteak beste, alde zaharra, edo Erdi Aroko bidea. Casino jatetxean bazkalduko dute. Bazkideentzako prezioa 35 euro da. Bazkide ez direnek 45 euro ordaindu behar dituzte.

Izena ematea Biyak Bat elkarteak bulegoan egingo da.

Bidaia Britainia eta Normandiara

Urtero bezala, Lasarte-Oriako talde batek bidaia antolatuta du Britainia eta Normandiara, uztaillak 16tik 26ra. Interesatuak 661 417 853 telefonora deitu behar dute.

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen da Usurbil erdigunean. Igogailua du. Bikote batentzat aproposa. Kanpoaldera, handia, altzairuekin. 650 636 588.

Garaje marra bat alokatzen da Lasarte-Oriako hipodromoko etxebizitzetan. Telefonoa: 648 614 769.

LANA

ESKAINITZA

Usurbilgo ileapaindegi baterako langile bila dabilta. Esperientziarekin. 35 orduko lanaldia. 619 06 06 85

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko

lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagire, Inigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Legu Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LABURPENA

Lazzaro Felice (JBGA)

Zuzendaria: eta gidoilaria: Alice Rohrwacher. **Herr.:** Italia (2018). **Argazkia:** Helene Louvart. **Antzezleak:** Adriano Tardiolo, Alba Rohrwacher, Agnese Graziani, Luca Chikovani, Sergi López, Natalino Balasso, Tommaso Ragno, Nicoletta Braschi, Leonardo Nigro. **Iraupena:** 125 minutu.

Klaseez gaindiko adiskidetasuna

Alice Rohrwacher zuzendari italiarraren laugarren filma da Lazzaro Felice.

Lazzaro nekazari gaztea da, Inviolatan bizi da; bertan, nekazarien bizimoduak ez du inolako aldaketarik izan. Uda batean, Lazzarok Tancredi gaztea

ezagutuko du, eta haren lagun egingo da.

Aurreko lanen antzera, nazioarteko zinemaldietan sariak lortu ditu filmak, hala nola, Cannesko zinemaldian gidoi onenaren saria eskuratu zuen. Jatorrizko hizkuntzan eskainiko da gaztelarazko azpidatizkiekin.



LABURPENA

Green Book

Zuzendaria: Peter Farrelly. **Gidoilariak:** Brian Hayes Currie, Peter Farrelly, Nick Vallelonga. **Herr.:** AEB (2018). **Antzezleak:** Viggo Mortensen, Mahershala Ali, Iqbal Theba, Linda Cardellini, Ricky Muse, David Kallaway, Montrel Miller, Harrison Stone, Mike Young, Jon Michael Davis, Don DiPetta, Mike Hatton. **Iraupena:** 130 minutu.



LASARTE-ORIA VII. Aste Musikala. Aste Musikalak aurrera darrai eta euskal musika izango da nagusi. Gaur, ostirala, Demode Quarteten ahotsetan, doinu tradizionalak eta hauen moldaketa bereziak entzun ahalko dira Manuel Lekuonako aretoan. Bihar, berriz, Pablo Sorozabal euskal musikagilearen *Katiuska* zartzueta itxiko du aurtengo edizioa. Manuel Lekuona kultur etxea, gaur, ostirala eta bihar, larunbata.

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Demode Quartet taldeak *Epa txiki!* ikuskizuna eskainiko du. Familia osoarentzako ikuskizun musikala da. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Zartzueta

Sasibill elkarte lirikoak *Katiuska* Pablo Sorozabalen lehen zartzueta eskainiko du. Sarrera, 12 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 20:00etan.

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Antzezlanak

Bazen Behin Clown taldeak *Sexijentziak askatuz* antzezlanak eskainiko du. Umorez betetako lan honek ikusleen parte hartzea sustatuko du. M8ko egitarauko ekintza da.

Biyak Bat elkarteak, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Solasaldia

Emakumean Nazioarteko Egunari buruz solasaldia nerabeentzat. Ikus-entzunezkoa eta eztabaida uztartuko ditu saioak.

Gaztelekua, 18:00etan.

LARUNBATA 16

ANDOAIN Musika

Estitxu Pinatxo eta Mikel Sanchez bikoteak *Dama Beltzak* emanaldia eskainiko du. Musikaren bitartez iraultza eta borroka egin zuten dama beltz batzuei merezitako errekonozimendu xumea da. Sarrera, 8 euro. Bastero kulturgunea, 20:00etan.

ASTEAZKENA 20

LASARTE-ORIA Ardo dastatzea

Aterpea Merkatarik elkarteak ardo dastatzea izango da. Izena

ematea 7 euro. Plaza mugatuak dira. Isla plaza ardotea, 19:00etatik 21:00etara.

OSTEGUNA 21

LASARTE-ORIA Ardo dastatzea

Felix Lorenzo Cachazo upeltegiko ardo dastatzea izango da. Izena ematea 7 euro. Plaza mugatuak dira. Aterpeak sustatua. Txartel taberna, 19:00etatik 21:00etara.

USURBIL Hitzaldia

Kolonbia, Bake akordioaren ondorengo giza eskubideen urraketak hitzaldia Kolonbiako hainbat erakundeetako hizlariekin.

Sutegi kultur etxea, 19:30ean.

Elkar ulertu beharra

Film onenaren eta jatorrizko gidoi onenaren Oscar sariak lortu dituen *Green Book* filma eskainiko dute helduen zinema atalean.

Peter Farrellyren lana benetazko istorio batean dago oinarritua eta, besteak beste, AEBetako arrazismoa du hizpide. Tomy Lip da istorioaren protagonista, New

Yorkeko kale eta tabernetan hezitako italiar-estatubatuarra da. 1960eko hamarkadan, Don Shirley pianista beltzaren gidari lanak egingo ditu Lipek, AEBtako hegoaldera egin behar duen bira batean. Izaera eta pentsaera guztiz kontrakoa dute biek eta horrek bidaia zailduko du.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Lazzaro Felice (JBGA)

Ostirala: 22:00.

LEGO 2 (eusk)

Igandea: 17:00.

Green Book

Igandea: 19:30.

ASTIGARRAGA

KULTUR ETXEA

Maya erlea, ezti jokoak

Larunbata: 17:00.

URNIETA

SAROBRE

Dragoi Bola Super Broly

Igandea: 17:00.

USURBIL

URBIL

Capitana Marvel

Ostirala: 16:15,

17:55, 19:00,

20:10, 20:45,

22:00, 23:30.

Larunbata: 16:15,

17:55, 19:00,

20:10, 20:45,

22:00, 23:30.

Igandea:

16:15, 17:55,

19:00, 20:10,

20:45, 22:00.

Taxi a Gibraltar

Ostirala: 15:45,

17:50, 20:00,

22:10, 00:20.

Larunbata: 15:45,

17:50, 20:00,

22:10, 00:20.

Igandea:

15:45, 17:50,

20:00, 22:10

El niño que pudo ser rey

Ostirala:

17:15, 19:45,

22:15, 00:45.

Larunbata:

17:15, 19:45,

22:15, 00:45.

Igandea: 17:15,

19:45, 22:15.

Escape Room

Ostirala: 16:00,

18:05, 20:20,

22:45, 00:50.

Larunbata: 16:00,

18:05, 20:20,

22:45, 00:50.

Igandea:

16:00, 18:05,

20:20, 22:45.

Cómo entrenar a tu dragón 3

Ostirala:

15:45, 17:00,

18:00, 19:15.

Larunbata:

15:45, 17:00,

18:00, 19:15.

Igandea:

15:45, 17:00,

18:00, 19:15.

Mula

Ostirala:

17:30, 19:55,

22:25, 00:55.

Larunbata:

17:30, 19:55,

22:25, 00:55.

Igandea: 17:30,

19:55, 22:25.

Green Book

Ostirala:

21:45, 00:30.

Larunbata:

21:45, 00:30.

Igandea: 21:45.

Perdiendo El Este

Ostirala:

22:30, 00:35.

Larunbata:

22:30, 00:35.

Igandea: 22:30.

Corgi, las mascotas de la reina

Ostirala: 15:55.

Larunbata: 15:55.

Igandea: 15:55.

Alita: Ángel de combate

Ostirala: 00:40.

Larunbata: 00:40.

ASTE...
GAZTEA!!!

Apirilaren 15etik 17ra

Orion 3 egun!!!




Noiz: Apirilaren 15etik 17ra **Norentzat:** 9-12 urteko haurrak
Prezioa: Ttakuneko bazkideak 48€ | Bazkide ez direnak: 51€
Izen-ematea: Apirilaren 5a arte (hau barne)
Informazio gehiago: Ttakuneko bulegoan | 943 37 14 48 | aisia@ttakun.eus
Bilera gurasoekin: Apirilaren 10ean, 17:30ean Anbulategiko 2. solairuan

PLAZA MUGATUAK!
ANIMA ZAITEZ!



txintxarri
www.txintxarri.eus/gida

GIDA
KOMERTZIALA



Denda, taberna, jatetxe edo
enpresa bat duzu?

Parte hartu gidan!

42€
urtean



- Gida osatua, eguneratua eta erabilgarriena.
- Lasarte-Oriako denda eta enpresen telefono gida.
- Sarean, mugikorretan, tabletetan...

GIDAN PARTE HARTZEKO: publizitatea@ttakun.eus 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66 Geltoki kalea, 4 Lasarte-Oria



Ttakun Kultur
Elkarteko bazkide zara?

Martxoaren 21ean, Errigorako sorta ekologiko bat
zozkatuko dugu Ttakuneko bazkideen artean

Eman izena martxoaren 20a baino lehen (hau barne)
harpidetza@ttakun.eus, 646 82 44 66an edo bulegoan.



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra eta kontserba zein
arroz-sortak martxoaren 22a arte eta elikatu ezazu maite duzuna.
www.errigora.eus webgunean

... eta Txintxarrik ere bai!

www.txintxarri.eus



Irakurleen artean ere Errigorako sorta
konbetzional bat zozkatuko dugu.

Eman izena martxoaren 20a baino lehen
www.txintxarri.eus/zozketak
edo 646 82 44 66



Bazkideetza
informazioa



@ttakunKE